

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2012ko maiatzaren 16a. IX. urtea. 2.349. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Tolosako historian atzera egiteko aukera, begiratoki berrien bidez

Bederatzi panel jarri dituzte; informazio guneetan QR kodea jarri dute eta bisita gidatuak egingo dituzte, hitzordua zehaztuz 02



Jon Unzueta eta Hasier De los Rios, atzoko aurkezpenean. I. URKIZU

Zigor Aranalde Futbol entrenatzailea

«Oso pozik nago Albaceten; jokalarietatik oso gertu nago»

Duela bi denboraldi utzi zuen zelaia eta orain Albaceten dago bigarren entrenatzaile bezala 07

Manu Azkarate tolosarrak ez dela klandestinitatean bizi esan dio epaileari

Atzo izan zuen epaiketa, Pauen, eta fiskaltza bere osasun egoerari garrantzia kentzen saiatu dela esan du; hilaren 29an jasoko du epaia 03



E. MAZ

→ **San Isidro eguna ospatuz.** Tolosaldean baserriarren zaindariaren eguna dela eta, ekitaldi ugari izan ziren, atzo. Asteasun (irudian) jende asko bildu zen Barrioren idi parearen eta Mendizabalen zaldiaren arteko erakustaldia ikusteko. Amasa, Abaltzisketa, Amezketeta, Berastegi, Gaztelu eta Zizurkilen ere ospatu zuten eguna. 04



Elkarretaratzea egin zuten Gernikako Sinatzaileek deituta, atzo. I. G. L.

Remi Gogoan Ekimenak gaztearen auzia artxibatu dutela salatu du

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren erabakia izan da; billabonatarrek «salbuespen eta jazarpen egoera baten ondotik» hil zela esan dute 05

Txoriak txori



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

Hitzaldi ziklo batean nengoela, sorbeltz baten irudia ipini nuen nere ordenagailutik gelako paretean. Hura zer ote zen galdetu nien hamalau bat urteko ikasle haiei. Inork ez zuen erantzuten eta isilune baten ostein gelako bertsolariak, «txorie!» esan zuen irribarez. Ez zebilen gezurretan. Bai, sorbeltza txori bat da, baina baita oiloa, arrano beltza, ostruka eta hormatxoria ere. Baina goazen txori hitza albo batera uztera, eta dei diezaiegun hegazti, baditugu gurean hauetako mordoia eta.

Luma duten animalia bakarrak ditugu hegaztiak. Lumak, hasieran behintzat, ez ziren hegan egiteko asmatu, beroa kontserbatzeko baizik. Hegaztiak eta ugaztunak gara gorputzean beroa sortzeko gai garen animalia bakarrak eta bero hau sortzea oso garestia zaigu, horregatik, gure azala isolatu egin behar dugu nolabait.

Gorputza isolatzeko, ugaztunok ilea asmatu genuen eta hegaztien ahaide urrunek, lumak. Ahaide urrun haiek bi hankako dinosaurusu ertainak ziren, eta dinosaurusu berezi hauek lumaz estalita omen zuten azala. Baina luma hau ez zen gaur egungo belatz edo arrano batek duen luma, txitoek duten ile formako luma baizik, beroa gordetzeko egina, eta noski, hegan egiteko ez zuen balio.

Milioika urte geroago, dinosaurusu hauetako batek zuhaitz baten puntara igo eta beste zuhaitz baten puntara salto egiteko ideia zoroa izan zuen. Lumek jauzi handi honetan planeatzen lagundu zioten eta dirudienez, arrakasta izan zuen, bere ondorengoek hegan egiteko abilezia lortu baitzuten geroago. Zorok irekitzen omen dituzte geroago jakintsuek jarraituko dituzten bideak... hori bai

egia borobila! Behin hegan egiteko lumak asmatu zirenean, hegan egiteko festa etorri zen, izan ere zeruan animalia guxti bizi zen eta hegaztiak zeruko errege egin ziren, gaur egun ditugun hegazti mota ugari sortuz. Hegazti jaiak berriek, ordea, beroa gordetzeko, arbasoek lehenik asmatu zuten luma iletsua dute, hazi ahala luma berezi hau, hegan egiteko lumentz ordezkatzen da.

Lumaren mundua perfektionatu joan da, luma batzuk hegalduan mugimendu azkarrak egiteko dira. Beste luma batzuk ordea, gaueko ehiztariak dira, adibidez hontza zuria bezalakoak. Gaueko hegazti ehiztariak oso isilik ehizatu behar dute, beren biktima gautarrek oso entzumen onak izaten baitute. Hontz zuria batek hegan egitean ez du uso batek egiten duen *flap-flap* zarata egiten, guztiz isila da bere hegaldia, dituen luma bereziei esker.

Hala ere, zelebreena, hegan egiteari utzi dioten hegaztietan ikusten da: ostruka, ñamdua, kiwia... Hauek hegan egiteari utzi eta lurreko bizitzara egokitu ziren, hanka luzeak garatuz eta korrikalari bikainak bihurtuz. Ostruka baten oinak antza handia du zaldi baten oinarekin! Lumak ere, nahiko zelebreak dira, ugaztunen ilearen antza handia dute, ez baitira hegan egiteko erabiltzen, beroa gordetzeko baizik. Eta zelebrekeriak ez dira hemen amaitu; bada hegan egitea ahaztu eta igerilari bihurtu den hegaztirik: pingüinok. Beren lumak, txikiak eta ugariak dira, arrainen ezkatzen antza handia dute eta noski, ez dute hegan egiteko balio, igerian egiteko baizik.

Espero dut, zutabe xume honen irakurleek aurrerantzean txoriei hegazti deitzea eta gure artean ditugun xoxo, txolarre, buztanikara zuri, ubarroi eta bestelakoak ezagutzen hastea! Eta zutabe honetan idatzitako oro berrirakurri nahi duenak, www.bioaniztasunetik.comen du guztia.

Ekokulturari buruzko albisteak, berriz, *Twitter*eko orrian ipiniko ditugu. Ez ahaztu bioaniztasunetik@hotmailera idazten jarraitzea eta izan hegaldi ona!



Paneletan QR kodeak eskuragarri izango dira bisitariarentzat, informazio osagarria eskuratzeko. I. URKIZU

Bederatzi begiratoki berri jarri dituzte Tolosan, historian barrena ibiltzeko

Ikasleentzako nahiz helduentzako bisita gidatua eskainiko dituzte, aurrez hitzordua zehaztuta

Itzea Urkizu Tolosa

Tolosako historia hobeto ezagutzeko baliagarriak izango diren bederatzi informazio panel jarri ditu Tolosako Udalak, herriko hainbat lekutan. 2009 inguruan, udalak herriko ondare arkitektoniko eta historikoari balio handiagoa emateko martxan jarri zuen proiektua osatuko dute panel berriek. Berrikuntzarik nabarmena paneletako QR kodeena izango da, bisita gidatuekin batera.

Hasier De los Rios zinegotziak, udaren etorrera nabarmendu zuen aurkezpen agerraldian: «Turismoari begira jarri ditugu pane-

lak, besteak beste, eta ibilbide historikoak egiteko aukera izango da».

Era berean, paneletan jarri dituzten QR kodeak ere nabarmendu nahi izan zituen De los Rios: «Bisitariak, beren mugikorrak marra zuri eta beltz horietara bertaratu, eta udalaren webgunetik informazio osagarria jaso ahal izango dute».

Tolosako Ingurumen Zentruko Juan Unzuetak, berriz, panel berrien aitzakian antolatutako dituzten bisita gidatuak izan zituen hipzide aurkezpenean. Batetik, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako bisitak antolatuko ditu TIZek, eta baita euskaltegiak, helduen eskoletako eta antzeko taldeentzat ere. 08:00etatik 14:00etara egin ahal izango dira aipaturiko bisitak, eta 943 65 25 44 telefonora deituz nahiz www.tolosakoiz.net helbidean zehaztu ahal izango dira hitzorduak. Helduen-

tzako taldeen bisitez, berriz, turismo bulegoko langileak arduratuko dira.

Bederatzi txoko historiko

Guztira, bederatzi begiratoki berri izango dira Tolosan, jarritako panel berriekin. Batetik, Zerkautia, Nafarroako Zubia nahiz Idiakez jauregiaren nondik norakoak azalduko dituen panela jarri dute begiratoki moduan, eta garai bateko harresiaren barrualdeaz ariko da.

Harresitik kanpo, Santa Klara komentua eta Igarondoko papelearen iragana ezagutu ahal izango dute bisitariak beste panel baten bidez. Era berean, Arrameleko zubitik azalduko du beste panel batek, XVIII. mendean Tolosatik pasatzen zen errege bidea ere.

Bideez harago, plazek ere beren lekua izango dute ibilbide historiko honetan, eta Plaza Berriak mendeetan zehar izan duen bilakaera azalduko du bertan jarri duten panelak. Garai bateko Tolosa inguratzen zuen harresiaz ariko da Trianguloa plazako panela, eta San Frantzisko pasealekua hiribiduaren lehen zabal-kundea izan zela ere azalduko du beste panel batek.

Azkenik, Arkauter parkean zegoen La Esperanza paper fabrika, fabrikek Oriia ibaian izan zuten eragina, Iurreamendi egoitza nahiz Tolosaren hazkuntza ere hipzide izango dituzte informazio panel berri hauek.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Baratze ludikoak.** Landu zure barazkiak. Dagoeneko prest dagoen lur sail bat eskaintzen dizugu zuk barazkiak lantzen goza dezagun. Hilean 35 euro edo gehiagoren truke, 50, 60 edo 120 metro karratuko lur saila aloka dezakezu Tolosatik

hamar minutura. Zure baratze ekologikoa egiten aholkatu eta lagunduko dizugu, laborantza ekologikoaren aldeko apustua egiten baitugu. Animatu! Eskura duzu naturaz gozatzeko eta baratzean aritzeko aukera. Kontaktatu telefonoz: 687 122658.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Gutuna

Kirikiñoren Saharako Kanpaina

Tolosar maiteok,

Kirikiño Aisialdi Taldeko 26 gazte gara. Azken hiruhilabete-an tamalez hain boladan dau-den gaiak jorratu ditugu: pobrezia, berdintasuna, milurteko helburuak, giza eskubideak, eta abar luze bat. Eta gai hauek lan-tzean, gure lagun sahararretaz oroituz gara; hauek laguntzeko beharra sentitu dugu. Horretarako Saharako Kanpaina izena duen proiektua jarriko dugu abian. Ez da egiten dugun lehen aldia, urteak daramatzagu Sa-harako errefuxiatuentzat kami-setak eta eskoletarako materia-lak biltzen. Aurtzen, ordea, lagun-tza gure ikastetxeetan eskatu beharrean (Hirukide Gainberri, Jesuitinak eta Eskolapioak) To-losa osoari eskatzea erabaki dugu, denok izan gaitezten pro-tagonista.

Gehienok dakizueenez —eta ez dakizuenentzat— Tolosa Saha-rako Bir Lehlu izeneko errefuxia-tzu kanpamendu batekin anaitu-rik dago. Anaiturik egoteak, gure anai-arrebak balira bezala tra-tatu behar ditugula esan nahi du, lagundu egin behar ditugula. Beraiek ez baitute guk dugun zortea. Ez gara tuntunak, gu ere konturatzen gara gaur egungo egoera ez dela besteei lagun-tzen hasteko hobereana. Hala ere, denok laguntzea nahi dugu-nez, denok lagundu ahal izango duzue. Laguntzea, etxean ditu-zuen kamiseta zaharrak emate-a bezain erreza da. Zuetako askok izango duzue etxeko ar-mairua garbiketa baten behar-rean; beste laguntzea baino ait-zakia hoberik ba ahal dago egi-teko? Eta zer esan etxean erabili gabe ditugun boligrafo, koaderno, guraize, arkatz, mar-gola... Bir Lehluko umeen hez-kuntza gure etxeetako material eskolar ezberdinean dago.

Beraz, tolosarrok (inguruko herriren batekoa bazara ere, gustura jasoko dugu zure lagun-tza) gogoratu zaitezte maiatzaren 19an, larunbata, kamiseta eta eskolarako materiala Trian-guloara eramaten. Bertantxe izango gara zuen zain, 10:30etik 13:30era.

Proiektu erakargarri eta ilu-sionagarria da aurrean duguna eta zuen parte hartze aktiboa behar dugu. Eman diezaiozun Bir Lehluko herriari ustekabe eder bat. Erakutsi diezaiozun gure seme, iloba, biloba, lehen-gusuei... gutxiago dutenei la-guntzeak dakarren poza. Sinetsi dezagun mundu berri batean.

■ Kirikiño Aisialdi taldeko 26 gaz-te. Tolosa.

Espainiako epaitegiek eskatutako estradizoari buruzko epaiketa izan zuen tolosarrak, atzo, Pauen

Imanol Garcia Landa

Atzo egin zioten epaiketa Manu Azkarate tolosarrari Paueko epaitegian, eta maiatzaren 29an jakinaraziko diote epaia. Espainiako epaitegiatik egindako estradizio eskaera dela eta egin zioten epaiketa Azkarateri. Tolosarrak bere aurkako akusazioak gezurtatu ditu epaiketan, hitza hartu ahal izan baitu. «Ni ez naizela klandestinitatean bizi azaldu dut. Euskal Herrian bizi naizela eta lokalizatuta eta identifikatu-ta nagoela eta ez naizela ezku-tuan bizi», esan zuen atzo tolosa-rrak, epaitegitik atera ondoren.

Manu Azkarate Frantziako poli-ziak martxoaren 7an atxilotu zuen, Ziburun, euroagindu baten harira. Preso ohia kontrol judizial pean aske geratu zen egun bere-an. 2004az geroz, kontrol judizial pean bizi da tolosarra. Baldintza guztiak ez errespetatu izana lepo-ratzen dio Espainiako Justiziak.

Pauen egindako epaiketan, fis-

Manu Azkaratek maiatzaren 29an jasoko du epaia



Elkarretaratzea egin zuten, atzo, Tolosako Trianguloa plazan, Manu Azkarateri egindako epaiketaren aurka. 16L

kaltzak estradizioaren aldeko ja-rrera erakutsi zuen. Bestalde, Azkaratek azaldu zuenez, bere osa-sun egoerari «garrantzia ken-tzen» saiatu zen fiskaltza, txosten medikua aintzat hartu gabe. To-losarrak esan zuenez, ospitalean eman zioten azken alta agiria era-bili zuen fiskaltzak, ondo dagoela argudiatzeko: «Ospitalearen alta erabili du, tranpa eginez, nire ego-

era larriari kasu egin beharrean, ondo nagoela esateko, bizimodua espetxean egiteko moduan nago-ela gaineratuz».

Azkaratek epaiaren berri fax bidez jasoko du zurrerik, eta era-bakia estradizioaren aldekoa bada, helegitea jarriko du. Ho-rren ostean ere kontrako epaia ja-sotzen badu, beste helegite bat jartzeko aukera izango du, baina

bitartean estradizioa gauzatu dai-tekeela esan zuen tolosarrak.

Tolosarrak hainbat laguneng-ekartasuna jaso du. Batetik, zen-bait lagun joan ziren Pauera ba-besa ematera. Bestetik, Gernika-ko Akordioaren sinatzaileek deituta, atzo elkarretaratzea egin zuten 50 pertsona inguruk To-lo-sako Trianguloa plazan, Azkara-teren aurkako epaiketa salatzen.

Larramendiko auzotarrei prozesuan parte hartzeko eskatu die alkateak

Tolosako Larramendi auzoari buruzko batzarra egin dute; datorren astean, bilerak eta bisita gidatuak

I. Garcia Landa

Tolosako Larramendi auzoaren etorkizunari buruzko kontsulta egingo da ekainaren 16an, eta bien bitartean egingo den proze-suan parte hartzeko eskatu die Ibai Iriarte alkateak auzotarrei. Herenegun, kontsultaren aurre-tik aurreikusita dauden bi batza-rretatik lehena egin zuten Topic zentroan. Udalak Larramendi «auzo bizia» izatea nahi duela esan zuen Iriartek, «auzo izaera izango duena, auzo elkarte dina-miko batez osatua, logune batetik haratago».

Batzarrean aurrerantzean egingo diren ekimenak azaldu zi-tuzten. Hala, datorren astean bi-lerak eta bisita gidatuak egingo dituzte auzoan bertan. 25 perso-nako taldeak egingo dituzte eta ez da izenik eman behar saioetan parte hartzeko.

Zenbait kezka ere jarri ziren mahai gainean batzarrean. Esa-terako, udalak bultzatu duen proiektua zehatzago jakitea eska-tu zuen herritarrek batek. Bestal-de, auzoko merkatari batek obrek zenbat irauan ahal duten galdetu zuen. Kontsultan zein galdera egingo den ere eztabaidagai izan zen. Kezka horiek jaso zituztela esan zuten alkateak eta prozesua dinamizatzen ari den aholkulari-tza taldeko kideek, eta erantzuna emango zaiela gaineratu zuten. Bestalde, batzarrean auzoari bu-miruzko bi proiektuak erakusten di-tuen argitalpena banatu zuten.

Izaskun auzoko bazkarirako argazki erakusketa egin nahi dute

I. Garcia Landa

Tolosako Izaskun auzoan bazka-ria egingo dute ekainaren 2an. Egun horretan argazki erakuske-ta antolatuko nahi dute. Horrega-tik, antolatzaileek deialdia egin diete auzoari buruz argazkiak di-tuztenei; irudietan auzora bizitze-ra joan zirenak (nagusiak) edo au-zoarekin zerikusia duten gertaer-ak eta kuriositateak agertu daitezke. Arsenal elkarrean edo Dionisiren dendan utzi daitezke, eta galdu edo matxuratu ez daite-zen, kopiak eraman daitezke.

Egun horretarako egitaraua ze-haztu dute: 09:00etan, meza au-zoko hildakoen omenez; 11:00etan, toka; 12:00etan, Sakramentinoe-tako erretoreak auzoari bede-in-kapena; 12:30ean, nagusienei omenaldia; 14:30ean, bazkaria.

Oriako taldekoak bigarren eta hirugarren, erlojuaren aurka

I. Garcia Landa

Oriako-Limousin taldeko txirrin-dulariek erlojuaren aurkako Gu-puzkoako Txapelketa jokatu zu-ten aurreko asteburuan. Infantil mailan Oriakok bigarren postua lortu zuen. Ondorengo bost txir-rindulariek hartu zuten parte proban: Aitor Zurdo, Luis Mari Garikano, Asier Aiertza, Ibai Ur-bieta eta Unai Iribar. Alebin mail-an Oriakok Laskorain ikastola izenarekin parte hartu zuen eta hirugarren postua eskuratu zuen. Iker Lakunza, Iñaki Diaz eta Ander Tejedor izan ziren lehiatu ziren hiru txirrin-dulariak.

Bestalde, kadete mailakoek Zu-maian izan zuten lasterketa eta Oriakoko Xabi Contrerasek biga-rrerik egin zuen.

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Beti Alai
jatetxea

Garaian
garaiko janariak
Arraikietan bereziki

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerteri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Baserritarren zaindaria, San Isidro

San Isidro eguna ospatu dute hainbat herritan; hamaiketakoa, herri kirolak, bazkaria edota meriendak izan dira

Eneritz Maiz

Baserritarren zaindariaren egun izan zen atzokoa. Asteasu, Amasa, Abaltzisketa, Amezketa, Berastegi, Gaztelu edota Zizurkilen baserritarrek elkartu ziren. Asteasuko plazan, «hau ez duk San Isidrotako haizea», esan zion baserritar batek besteari, Joxe Barriolaren idi parearen eta Andoni Mendizabalen zaldiaren arteko erakustaldia ikusten ari zirela. Hala ere, baserritar guztiak ezin izan zuten jai egin. Dagoeneko, udaberriko lehen eguzki izpiak aprobetxatzen hasiak dira, belarrik moztu eta belar bolak egiteko.

Eskualdeko belardi askotako belarrik moztu dituzte, eta atzokoan ere, San Isidro eguna izanagatik, baserritar ugari aritu zen lanean.

Amezketarrak izan ziren eguna ospatzen lehenak. Baserritarrek, hamaiketakoa izan zuten. Asteasuarrek, aldiz, egun osoko festa izan zuten. Lehenik eta behin meza izan zuten, eta ondoren, proba lekuan erakustaldia. Lehenengo, Joxe Barriolaren idi pareta eta atzetik, Andoni Mendizabalen zaldia ikusi ahal izan zituzten bertaratuak. Plazan jai giroa izan zuten. 14:00etan, baserritarrek, Sarasola sagardotegian izan zuten bazkaria Irazu eta Soto bertsoariekin. Erromeria, berriz, trikitilariekin.

Zizurkil Goia baserritarren bilgune bihurtu zen. Festa batzordeak, urtero bezala, San Isidro eguna antolatu zuten. Meza nagusia izan zuten lehenik eta behin, eta meza ostean, hizketarako tartea izan zuten bertan elkartutakoak.



Abaltzisketako baserritarrek Ostatuan bazkaria izan zuten, giro ederrean egon ziren. E. MAIZ

Ondoren, herri kirol saioaz gozatzeko aukera izan zuten Intxaur pilotalekuan. Trikitilariak girotu zuten saioa. Alde batetik, aizkolariak eta bestetik, harrijasotzaileak aritu ziren. Joseba Otaegi eta Mikel Larrañaga bikotea, Jon Irazu eta Unai Otañoren aurka. Tartean, Telleria anaiek harria jasotzen egon zuten saioa. 14:00etan, berriz, bazkaria izan zuten Iriarte jatetxean. Trikiti doinuek alaitu zitoten arratsaldea.

Berastegin, udaletxetik San Martin elizara prozesioa egin zuten, eta ondoren, mahaiaren bueltan eserita bazkaria izan zuten Kakonen. Hauek ere, trikiti doinuek izan zituzten. Abaltzisketarrak, bazkaria izan zuten Ostatu jatetxean. Lagunen artean, kontu kontari, giro ederrean bazkaldu zuten. Gaztelun, berriz, merienda izan zuten arratsaldean.

Larunbatean, Baliarrainen

Baliarrainen atzo ez zuten ospatu San Isidro eguna, eta ordainetan, larunbatean ospatuko dute. Egun hau ospatzeko, urtero moduan, afaria egingo dute herritarrek. Hitzordua Zartagi Jatetxean izango dute, 21:00etan.



Nahiz eta euren eguna izan, lanik ez da falta izaten baserrian. E. MAIZ

Gaur 19:00etan, Gipuzkoa Zero Zabor taldearen hitzaldia izango da, Amezketa

Ibarra Zero Zabor taldeak biharko antolatu du euskaraz izango den hitzaldia

E. Maiz

Amezketako Udalak, hondakinen gaiari gogor heldu dio, eta dagoeneko ohiko osoko bilkuran onartua du hondakinak gaika biltzeko hartuko duen konpromisoa. «Hartutako konpromisoari erantzunez, hiri hondakinen kudeaketaren azterketa eta planteamendu berri bat egiteari ekin diogu», diote udaletik.

Herritarrek informatzeko eta hauek eduki ditzaketan zalan-tzak argitzeko, hitzaldia antolatu dute. Gipuzkoa Zero Zabor taldeak emango du, gaur, 19:00etan. Kultur etxean izango da, eta herritar guztiak hitzaldira joatea nahi dute. Bertan izango dira udal ordezkariak kudeaketa berriaren inguruko informazioa emateko, eta Gipuzkoa Zero Zaborrekoek mugimendu honen filosofia eta nondik norakoak argituko dituzte.

Gaiarekin lanean hasteko, herritarren parte hartze aktiboa izan zuen saio baten bidez, zalan-tza eta kezkek jaso zituzten udal ordezkariak. «Argi guenen galdera guzti horiei erantzuna eman behar genielan», gaineratu dute.

Bien bitartean, «Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoa Zero Zabor taldea eta beste herri txiki-txikiak ordezkariekin elkartuz, kudeaketa berri bat bilatzeari ekin diogu», azaldu dute. «Zaborra murrizteko modurik eraginkorrena delako, bat egin dugu zero zabor politikarekin» nabarmendu dute.

Amezketako, zero zabor herri bilakatu nahi dute. Hiri hondakinen kudeaketa berria garatzeko udalak hainbat erabaki hartu nahi ditu: «Amezketarrok sortzen dugun zaborretik, organikoa bereiztea eta herrian guk geuk kudeatzea nahi dugu, autokompostea eta konpostaje komunitarioen bidez».

Ibarra Zero Zabor ere lanean

Ibarra Zero Zabor taldeak antolatu, hondakinen inguruko hitzaldia izango da bihar, 19:00etan, kultur etxean. Gipuzkoa Zero Zabor taldeko kideek emango dute hitzaldi hau ere, euskaraz, *Zero Zabor: Posible al da atez ateorik gabe?* izenburupean. Hilaren 24rako errausketaren inguruko ikus-entzunezkoa antolatu dute.



Telleria anaiek harriak jasotzen aritu ziren, txandaka. E. MAIZ



Aizkolariak erakustaldia egin zuten pilotalekuan. E. MAIZ



Joxe Barriolaren idi pareta aritu zen proba lekuan. E. MAIZ

Remi Ayestaranen auzia artxibatzea erabaki du epaitegiak

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak hartu du erabakia; alkate ordea zena 2009ko uztaillaren 31n hil zen

Rebeka Calvo Amasa-Villabona

Remi Gogoan Ekimenak Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak Remi Ayestaran herrikidearen auzia artxibatzea erabaki duela salatatu du. «Erabaki horren aurrean, gure salaketa gogorrena egin nahi dugu. Izan ere, argi eta garbi daukagu, Remi Ayestaran Villabonako alkateordea, ez zela berez edo bihotzekoak jota besterik gabe hil, baizik eta salbuespen eta jazarpen egoera baten ondotik eman zuela azken hatsa. Eta gertatutakoaren erantzuleak, ardurak bere gain hartzea exijitzen dugu, legezkoa dela uste baitugu», azaldu dute.

Remi Ayestaran 2009ko uztaillaren 31n hil zen Ertzaintzarekin izandako tentsio uneen ondotik.

Familiak heriotzaren nondik norakoak argitzeko erabaki zuen auzia irekitzea.

Orain ezagutu duten auziaren artxibatzea dela eta, epai bideak oraingoz alde batera utzi arren, ekimeneko kideek ez dute bazterten etorkizun batean arlo horretan beste bideren bat jorratzea.

Era berean, epaiketan inolako testigantzarik jaso ez zutela salatatu dute, eta justiziaren jokabideak «harrirituta» utzi dutela nabarmendu: «Are gehiago gaur egungo egoeran eta politikariak bi aldeetako biktimez eta bakerako ponentzietaz etengabe hizketan entzuten ditugunean».

Egiari Zor fundazioa

Bestalde, billabonatarrek «ozen txalotu» dute sortu berri den Egiari Zor fundazioa. Zentzu honetan joan den apirilean Ertzaintzaren pilotakada batek jota hil zen Iñigo Cabacas gaztea ekarri dute gogora.

«Beste polizia eredu bat eskatzen dugu, egungo ereduak sezugtasuna eman beharrean, bel-

durtu egiten gaituelako», esan dute.

Hau guztia ikusita, Remi Gogoan ekimeneko kideek Egiari Zor fundazioarekin harremanetan jartzeko asmoa dutela azaldu dute, eta uztaillaren 31ko omenaldia antolatzeri ekingo diotela ere iragarri nahi izan dute.

Egia eta justizia exijituz

Ekimeneko kideek egia eta justizia exijitzeko lan egingo zutela agindu zutela gogoratu dute, eta helburu horrekin «epaitegiatako bidea hasi zuen familiak gure laguntza eta babes osoa» jaso zuela esan dute.

«Kasua irekitzeko beharrezko pausu guztiak eman genituen abokatu baten laguntzarekin. Bide honetan ezin dugu ahaztu Amasa-Villabonako Udalak emandako babes ere, udalaren osoko bilkura batean hala erabakita. Hartara, hainbat herritar epaitegiatan lekuko gisa deklaratzeko prest izan ziren, benetan gertatutakoaren testigantza emateko», gaineratu dute.

Irudia Amasa-Villabona



BEHORLEGIKO LAINOAK

Aizkardi mendi taldearen eskutik Behorlegira joan ziren hainbat mendizale igandean. Behe lainoaren ondorioz, paisaiaz gozatzeko aukera handirik ez zuten izan, baina gozatzeko modurik aurkitu zuten mendian. Igande honetan, hilaren 20an, Aralarra goiz pasa joango dira, Olaederra kiroldegitik 08:30ean irtengo direlarik. HITZA

Irudia Zizurkil



'GOAZEN MENDIRA'

Iragan Ostiralean Zizurkilgo Jesusen Bihotza ikastolako LHI eta LH 2 mailako ikasleek irteera egin zuten Zizurkil Gora. Txanelako Goazen mendira gaia lantzen ari direnez, txango hau egitea erabaki zuten naturako elementuak hobeto aztertu ahal izateko. Primeran pasa zuten denek, eguraldi ezin hobea izan baitzuten. HITZA

08804 zenbakidunak izango du Paris doan ezagutzeko aukera

Villabonako Oria merkatariaren elkarteko kideek Parisera bidaia zozketatu zuten atzo, jendaurrean

Asier Imaz Amasa-Villabona

Oria merkatariaren elkarrekin Parisera bidaia zozketatu zuen, atzo. Zenbaki saritua 08804a izan zen, eta txartel hau duen bezeroak bi lagunentzako bidaia irabazi du Frantziako hiriburura, gastu guztiak ordainduta. Villabonako merkatariaren elkartetik azaldu zuten, irabazleak zenbakia aurkezteko bi asteko epea izango du,

denbora horretan txartelak ez baldin bada azaltzen, saria ez litzateke banatuko.

Pariserako bidaiaren zozketa Eros ezak/n hemen eta joan hadi Parisa kanpainaren barruan antolatu du Oria merkatariaren elkarrekin. Bezeroen erantzunarekin oso gustura gelditu dira merkata-

rien elkarteko kideak: «Oso positiboa izan da kanpaina. Merkatariak gustura gelditu dira erantzunarekin, eta kontsumitzaileek harrera oso ona eman digute. Amaieran, txartelen faltan gelditu gara. Aurrera begira, horrelako ekimenekin jarraitzea onuragarria izango da».



Oria merkatariaren elkarteko kideek egin zuten zozketa, atzo. A. IMAZ

→ Laburrak

Txikientzat ipuin kontalaria, liburutegian

ALKIZA › 0-4 urte bitarteko haurrentzat ipuin kontalaria egongo da bihar, hilaren 17an, liburutegian. 17:00etan hasiko da saioa, eta behin hasi ondoren, ezingo da barnara sartu.

Hondakin kudeaketari buruzko batzarra, bihar

ANOETA › Udaltzat martxoaren 26an herriko hondakin kudeaketari buruz harturiko erabakiaren berri emateko eta herritarren kezak eta ekarpenak jasotzeko batzarra egingo du bihar, hilaren 17an, udaletxe-ko bilkura aretoan. Batzarra 19:00etan hasiko da eta herritar guztiak gonbidatu dituzte bertara.



hitzak hitza



HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** pare ditu

Maiatzak 20 · Igandea
12:30ean
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Valencia Basket
saskibalo partida

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.



SAN SEBASTIAN GIPUZKOA BASKET S.A.D.



sarrerak



Zigor Aranalde (eskuinean) Athleticen aurkako Kopako partidari. HITZA

Zigor Aranalde > Futbol entrenatzailea

Eibarren hasi zen, eta bertako hainbat taldetik igaro ostean, atzerrian aritu zen jokatzeko ibartarra; duela bi denboraldi utzi zuen zelaia, eta egun entrenatzaile postuan ari da.

«Futbol jokalaririk izateari uztean egin nahi nuena bete dut entrenatzaile lanetan»

Iñigo Terradillos Ibarra

Futbol jokalaririk izateari utzi zion duela bi denboraldi Zigor Aranaldek (Ibarra, 1973). Espainiako ligara jokatu du, eta baita Ingalaterran ere. Orain, zelaitik aulkirako pausoa eman du. Bigarren B mailan dagoen Albacete taldearen bigarren entrenatzailea da.

Nolatan Albacete taldearen bigarren entrenatzaile?

Pasa den urtean Ingalaterran aritu nintzen futbol idazkari moduan lanean. Liga irabaziz amaitu genuen, eta igo egin ginen mailaz. Oporrak igarotzerako Albacete, emaztearen jaioterrira, joan ginen. Lagun on batek Albaceten lan egiteko aukera eskaini zidan, eta onartu egin nuen. Aukera ona zen, izan ere, batetik, etxean bertan geratzen ginen, eta bestetik, futboleko lan egitea jarrarazteko zidan. Beraz, Ingalaterrako konpondu nuen. Oso gustura geratu nintzen hartutako erabakiarekin.

Etxean geratzeari eman zenien garrantzia.

Futboleko edozein alorretan lan egitea oso gustuko dut, baina entrenatzaile bezala aritzea guztien gainetik dago une honetan niretzat. Lan honek aukera hori ematen zidan, beraz, garrantzitsua zen niretzat. Noski, familia berri ere etxera eramatea ere ga-

rrantzitsua zen. Beraz, erabaki hori hartu genuen.

Duela bi denboraldi futbola utzi zenuenean buruan al zenuen entrenatzaile moduan aritzea?

20 urte baino gehiago egin ditut futbol jokalaririk. Beraz, hori uztean, konturatzen zara gauza asko utzi dituzula bidean, eta bizitza guztia futbolari eman diozula. Beraz, futbolarik inguruan edozein lan egitea zein nire ideia edo aukeretakoa bat. Entrenatzaile izatea futbol jokalaririk izatetik gertu den dagoena dela esan daiteke, eta aurtengo denboraldira arte zait aukera hori iritsi.

Prestaketarik egin al duzu?

Jokalaririk izateari utzi nionean, entrenatzaile ikastaro bat egin nuen, eta kirol zuzendaritza master bat ere egin nuen. Ondo prestatu dut nire burua, nire asmoa futboleko jarrarazteko baitzen.

Zer moduz ikusi duzu zure burua entrenatzailearen paperean?

Oso pozik nago. Jokalaririk izateko oso gertu nago, eta eurekin dudana erlazioarekin gustura nago. Hori entrenatzaile baten postuan oso garrantzitsua da, gogoko dut.

Ardura handiagoko postua izango da entrenatzailearena, ezta?

Jokalaririk izatean zure ardura da fisikoki ongi egotea, duzun hoberena ematea eta entrenatzaileak behar zaitueneko prest egotea. Entrenatzaileak beste ardura

batzuk ditu. Partidak prestatu behar ditu, eta lantaldea kudeatu behar du. Nire kasuan, zertxobait erosoagoa da, ni bigarren entrenatzaile bainaiz.

Zeintzuk dira bigarren entrenatzailearen egitekoak?

Entrenamenduetan entrenatzailearekin egon. Bestalde, partiden ondoren, guztia grabatu egiten denez, ikusi egiten dugu berriro, akatsak atzemateko, eta ezaugarri onak azpimarratzeko. Aste osoan zehar egoten gara partidaren egindakoa zuzendu nahian, jokalariekin.

Albacete iritsi zinenean, taldea ez zegoen oso egoera onean.

Mailaz jaitsi berrikan sartu nintzen taldera. Egoera ez da hobereena, beraz. Taldea berritzea egokitu zaigu. Iazko jokalaririk izateko edo hirurekin geratu gara soilik. Taldea ere berregituratu egin genuen, harrobitik hasita. Aldaketa hauek guztiek, denboraldi txukuna egiten ari gara.

Maila berreskuratzea da aurtengo eronka.

Bai. Ahal dugun egokien egingo dugu. Bigarren A mailara igotzea lortuz gero, urte zoragarria litzateke. Orain, azken partida galdu dugun arren, play off-a jokatzeko sailkatu gara. Hemendik aurrerako partidetan, beraz, igotzea ala ez igotzea izango dugu jokoan.

Kopan aritzeko aukera ere izan duzu.

Bai. Athleticek eta Athletico Madrilen aurka jokatu genuen. Azken horien aurka irabaztea lortu genuen, baina bilbotarren aurka galdu egin genuen. Gozatu handia hartu genuen Kopako partidekin.

Eguneko zein entrenatzailearekin geratzen zara?

Barcelona eta Real Madril talde onak dira, eta entrenatzaileei dagokienez, Guardiolaarekin geratu nintzateke. Taldeei dagokionez, Barcelonaz gain, aurtengo Athletic nabarmenduko nuke.

Euskal talde bat entrenatzea gustatu al litzazuke?

Noski. Profesional mailan Eibarren hasi nintzen, eta esaterako noizbait bertan entrenatzeko aukera izatea asko gustatuko litzazuke. Eta, zer esanik ez Errealean, Athleticek edota Osasunan. Gaur egun, Albaceten nago, eta oraindik ikasten ari naiz. Egunen batean posible balitz gustura egingo nuke.

Zein une gogoratzen duzu, bereziki, futbol jokalaririk moduan aritu zirenetatik?

Eibarrerako salto oso garrantzitsua izan zen niretzat. Ibilbide oso bikaina bat aukeratu behar banu, Walsall taldearekin Reading-en aurka Cardiffeko Millennium stadion jokaturiko play offeko finala izugarria izan zen.

o ibarraldea@hitza.info

→ Laburrak

'Enjoy English' udalekuetan izen ematea

IBARRA > Ekainaren 27tik uztailearen 24ra Uzturpe ikastolak Ibarra Udalarekin batera antolatuta, *Enjoy English* jatorrizko ingeles hiztunak diren hezitzaileak gidatutako udaleku irekia egingo dute. Jokeak, eskulanak, ipuin kontaketa, antzerkiak, proiektuak eta abar ingelesez landuko dituzte. 6 eta 12 urte bitarteko gazteei zuzendua dago udalekua, eta bai Uzturpetik bai eta udaletik ere, parte hartzerako animatzen dituzte gaztetxo guztiak. Informazio gehiago nahi duenak 943 6712 99 telefono zenbakira deitu ahalko du.

Mendi irteera eta zikiri jatea, ekainaren 10ean

IBARRA > Bai Euskal Herriari herri ekimenak eta Haitzetan Raju mendi taldeak egun pasa antolatu dute ekainaren 10erako. Hain zuzen ere, Ibarra-Larte-Uli-Gaztelu bidea egingo dute. 09:00etan irtengo dira Ibarra plazatik, eta Gaztelun zikiriak bazkalduko dute. Izena eman daiteke facebooken edota Zubiaurren, Atarin eta Subegin.

Bi eguneko moto irteera antolatu du Langostinok

IBARRA > Langostino moto elkarteak irteera antolatu du hilaren 26 eta 27rako. Hilaren 26an arratsaldean irtengo dira Ibaratik, eta Gasteizera norabidea hartuko dute. Etxegarate, Egino, Zalduondo, Aguirain, Opakua, Kontrasta, Alda eta Santa Kruz igoz, Acedoko kanpinera ailegatuko dira. Nahi duenak igandean joateko aukera ere izango du. Kanpinera hamaiketako egingo dute, eta Anoetan, bazkaria. Informazio gehiagorako edo izena emateko, www.langostinomotofesta.com-en edota langostinomotofesta@gmail.com helbidean.

Sua filmaren argazkien erakusketa, ostirala arte

IBARRA > Ibarra kultur etxean *Sua* filmaren grabaketan ateratutako argazkien erakusketa ikusi daiteke. Ostirala izango da Eneko Arizaren Lagunak kultur elkartearen bigarren laneko irudiak ikusteko azken eguna; 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 21:00etara bisitatu ahal da. Ibaratik Ozaetara eramango dute erakusketa, eta ondoren, ekainaren 11tik 29ra, Tolosako kultur etxean ikusi ahal izango da.

Guardia bidez izango da urgentziako arreta aurrerantzean

08:00etatik 15:00etara osasun zentroan izango da zerbitzua; pediatrian ez da aldaketarik izango

I. Terradillos Leitza

Hezkuntzan bezala, osasunean ere murrizketak egingo ditu Nafarroako Gobernuak. Langileei ezezik, ordutegiari ere eragiten diete murrizketa horiek.

Nafarrak 20:00ak arte artatuak izango dira osasun zentroetan, foru gobernua ezarritako aldaketan eraginez. Baina, landa eremuan kokaturiko eta biztanleria txikiko herrien kasuan ez dute ordutegi hori izango. Leitzako osasun zentroa dago horien artean.

Kasu honetan, jendaurreko zerbitzua 08:00etatik 15:00etara izango da. Ordu horretatik aurre-



Leitzako osasun zentroa. HITZA

ra, etengabeko eta urgentziako arretak guardia bidez jarraituko du. Hau da, sendagileek edota erizainek zentroan bertan izan ez arren, zentrotik distantzia jakin batera egon beharko dute. Arreta behar duenak 112 zenbakira deitu beharko du, eta guardian dauden osasun langileak berehalakoan joango dira zentrorara. Bestalde, pediatria sailak egun bezala funtzionatzen jarraituko du Leitzako osasun zentroan.

Olaberria zubia berritzeko lanen %70 ordainduko du Nafarroako Gobernuak

I. Terradillos Leitza

Nafarroako Gobernuak onartu berri du lekuko inbertsioen barruan, Leitzako Olaberria zubia zaharberritzea bideratutako diru laguntza. Duela hiru hilabete amaitu zituzten bertan berritze lanak.

Zubiaren egoera larria kontuan hartuta, aspaldian jo zuten inbertsio hori urgentziako bezala, baina orain onartu dute inbertsio horretara laguntza bideratzea. Leitzararen kokaturiko zubiaren zaharberritze lanek 19.157,55 euroko aurrekontua izan dute, eta horietatik %70 ordaintzeko konpromisoa hartu du Nafarroako Gobernuak.

Uraren indarra, zuhaitzen sustriaik edota denboraren iragaitearen ondorioz oso hondaturik zegoen zubia, eta Leitzako Udalak ibilgailuentzako sarrera itxi zuten segurtasun neurri bezala.

Alex Mujikak pasta pintxo onenari saria eskuratu du

Sukaldari leitzarrak Zaragozako Daroca herrian eginiko Pasta eta Gozoen erakusketan jaso du saria

I. Terradillos Leitza

Beste sari bat irabazi du Alex Mujika sukaldari leitzarrak. Kasu honetan, Zaragozako Daroca herrian egin ohi duten urteroko Pasta eta Gozoen Gastronomia jardunaldiaren eman diete saria.

Kasu honetan pastarekin eginiko pintxo onenari saria eman diote Mujikari. Berritzaile izatea hartu du epaimahaik kontuan leitzararren jakia saritzerako orduan.

Urtarrilean Madrid Fusion azokan IX. Ogitarteko Sariketako irabazlea izan zen Mujika, eta pasa den urteko azaroan Nafarro-



Alex Mujika. HITZA

ako Kazuelatxo eta Ardoaren X. Astea, urrezko kategorian lehen saria jaso zuen tripaki eta onddo fideua plateragatik. 2009an Nafarroako Gastronomia saria eskuratu zuen, eta 2007an kaleratu zuen Reciclaje y alta cocina liburua saritua izan zen.

Irudia ◊ Lizartza



ESKOLAREN ASTEAN MURGILDURIK

XXIII. Eskolaren Astea ari dira ospatzen Lizartzan. Astelehenean ekin zioten eskulan taile-rra eta puntu txapelketarekin, eta atzokoan, bizikleta festa egin zuten. Iluntzean, berriz, akrosport izenburupean mugimendu dotoreak egin zituzten gaztetxoek. Gaur, berriz, jaialdia izango da ikusgai, eskolako gazteek barruan daramaten artista jendaurrean ateratzeko aukera izango dutelarik. 19:00etan hasiko da emanaldia. IT.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



XIV ORDUAK, GERTUAGO

Geroz eta gutxiago falta da XIV Orduak proba egunerako. Hilaren 27an ehunka mendizalek hartuko dute parte, eta markatzeko txartela banatzen hasi dira jada. Txartela Aralarko Adiskideak-en egoitzan (Araba etorbidea, 5-behea, Tolosa) hartu daiteke eta honekin batera Malloak-en inguruko liburu bat banatzen dute. Astelehene-tik ostiralera 18:00etatik 21:00etara, eta hilaren 19an eta 26an, 10:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 19:00etara, pasa behar da. Orain arte 2.100 pertsona inguruk eman dute izena. R.CALVO

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-nen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatutako Maiatza Borrokaren barruan gaur, 19:30ean, *Gdeim Izik del-turiko Udaberri Arabiarra lehen-dabiziko herri mugimendua?* hitzaldia, kultur etxean, Hassan-na Aalia saharar militantearen eskutik.

Agurrak



Manex Castro.

Intxurre futbol taldearen partetik, beti egongo dek futboleko fitxa bat hire zain. Hire beharrean gaituk!

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak



tolosaldea.hitza.info webgunean, XIV Orduak probaren atalean,

ibilbidearekin zerikusia duten albisteak dituzu eskuragarri: elkarrizketak, probaren xehetasunak, aholkuak...

■ **Maiatzaren 23an gehigarri berezia** argitaratuko dugu HITZArekin batera; antolatzaileen hitzak, medikuen aholkuak, ibilbidearen nondik-norakoak, garai bateko argazkiak...

■ **Maiatzaren 27an**, XIV orduen egunean, **HITZAK presentzia berezia izango du;**
... egunean zehar webgunean eta sare sozialetan ibilbidearen berri emango du momentuoro.
... San Migelen bertan presentzia izango du.
... gauean, proban parte hartu duten guztien argazkiak zintzilikatuko ditu webgunean, nahi duenak eskuratu ditzan.



■ **Maiatzaren 28an**, astelehenean, bezperako probaren inguruko **ale berezia** argitaratu eta banatuko du HITZAK eskualde guztian.